



Andreu Puñet, Emiliano Lopez Atxurra eta Jose Ignacio Zudaire, atzo, Petronorren egoitzan. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

# Petronorrek 222 milioi euroren irabaziak izan zituen iaz: %12,5 gehiago

Findegia egonkortzeko bidean dagoela esan du Lopez Atxurra presidentek • 2013. urtean zuen zorra erdira murriztea lortu dute

**Lander Muñagorri Garmendia**  
Muskiz

Urte zailak igaro ondoren, Petronor indartze bidean dago. Hala azaldu zuen Emiliano Lopez Atxurra findegiko presidentek atzo, 2016ko datuen aurkezpenan. Iazko jarduera positiboa izan zela esan zuen, baina «pedalei eragiten jarraitu behar dela» ahaztu gabe. Izan ere, krisi ekonomikoa atzean utzi izanaren lehen zantzuak izan zituen Petronorrek 2015eko urte amaieran, aurreko urteetan ez bezala, irabaziak izan baitzituen. 2016an ildo horri jarraipena eman dio Muskizen (Bizkaia) dagoen findegia, eta 222,4 milioi euroren irabaziak izan zituen, 2015ean baino %15,5 handiagoak. «Sendotzeko urtea izan da 2016a», Lopez Atxurraren arabera. 2017. urterako datu hori berdintzea izango da helburua, baina ez zuen zehaztu zein aurreikuspenekin jokatzen duten.

Irabaziek gora egin zuten arren, fakturazioak %14,5 egin zuen behera joan den urtean. 4.607 milioi euroren salmentak egin zituen Petronorrek 2016an –urtebete lehenago 5.390 milioi

izan ziren—. Baina petrolioaren prezioak behera joan den urtearen hasieran, eta horrek 2016a zenbaki positiboetan amaitzen lagundu die. Hainbeste, Petronorren irabaziek gora egin baitzuten. Andreu Puñet kontseilari ordezkoaren esanetan, arlo horretan zeresana izan zuen gastu finkoak mantendu eta kontsumoa murrizteak. Hau da, finean, irabazi tartea hobetu egin zuen findegia, «eraginkortasun energetikoan sakonduta».

Irabaziez gain, ekoizpen datuak ere hobetu zituen Petronorrek. 10,6 milioi tona lehengai destilatu zituen, 2015ean baino %1,3 gehiago. Salmenta aldetik ere hobeto moldatu ziren 2016an.

## 674

### MILIOI EUROAK ZERGETAN

Bizkaiko ekonomiaren zati handi bat ordezkatzen du Petronorrek, eta hori zergetan ikus daiteke. Iaz 1.274 milioi euro ordaindu zuen zergetan, eta horietatik 674 milioi euro Bizkaiko Ogasunera bideratu ziren. Zergetan biltzen denaren %10 ordezkatzen du kopuruak.

11 milioi tona saldu zituen, eta hortik %38 inguru esportaziora bideratu zuten, gainera. Itsas merkataritzari dagokionez, 14,6 milioi tona mugitu zituen iaz, eta Bilboko Portuko mugimendu osoaren %46 ordezkatu zuen.

### Zorra murrizten

Krisi garaian 1.121 milioi euroko zorra metatu zuen Petronorrek, eta azken bi urteetan kasik erdira murriztu dute. Joan den urtean 121 milioi euro amortizatu zituzten, eta 2013an zuten zorraren kasik erdia izatera igaro da findegia: 650 milioi eurokoa. «Bi urtean zorraren erdia murriztu izana oso ontzat jotzen dugu», Puñetek azaldu zuenez. 2017ari dagokionez dagoeneko 25 milioi euro amortizatu dituztela aurreratu zuen, eta zor osoaren amortizazioa bost edo sei urteren buruan gauzatuko dela aurreikusten du findegia. «Hala ere, ezin gara lotartu: zorraren zati handi bat ordaintzea lortu dugun arren, oraindik 650 milioi ordaintzea dagokigu», Puñeten arabera. Izan ere, esan zuen «enpresak egun duen martxak urte luzez iraungo badu» zor hori ordaindu behar dela.

## Elecnorrek kontratu bat lortu du Australian, eta Onddik, Mexikon

**DONOSTIA** • Eguzki energia ustiatzeko planta bat eraikitzeko kontratu lortu du Elecnorrek, Australian, 133 milioi euroren truke. Herrialde hartako proiektu fotovoltaiko handiena izango da, 374 megawatteko potentzia izango baitu. Beste euskal enpresa batek, Onddi ingeniaritza enpresak, Acapulcoko aireportuan (Mexiko) terminal berria eraikitzeko lanetan hartuko du parte.

## %12,1

### ZERGA BILKETA ZENBAT HANDITU DEN GIPUZKOAN

Urtarrilaren 1etik martxoaren 31 arte 719 milioi bildu ditu zergetan Gipuzkoako Ogasunak, iaz baino %12,1 gehiago. Araban eta Bizkaian bezala, sozietate zerga bilketa positibora itzuli da Gipuzkoan ere. Hiru lurraldeetan %10,4 ari da gora egiten bilketa, %4,3ko helburuaren gainetik.

## Bruselak ohartarazi du Londresen dauden EBko agentziak mugituko dituela

**BRUSELA** • Sendagaien Europako Agentziaren eta Europako Banku Agintaritzaren egoitzek Londres utzi beharko dutela ohartarazi dio Europako Batzordeak Erresuma Batuko Gobernuari. Bi agentzia horien kokalekua negoziatzeko gaien artean zegoela adierazi du David Davis *bretxit*-aren ministro britainiarrak. Sendagaien agentziak 890 langile ditu, eta bankuenak, berriz, 159.

## %1,5

### INFLAZIOA EUROGUNEAN

Urte hasierako iguera bizkorraren ondoren, inflazioa apaltzen hasi da eurogunean ere. Otsailean %2ra iritsi zen prezioen urteko bilakaera, baina, petrolioaren salneurrian gorabeherak gutxitu ahala, inflazioa %1,5era jaitsi da martxoan. Erresuma Batuan, ordea, %2,3an jarraitzen du.

## Orona

Estatutu Sozialen 42. artikulua agindutakoa betez eta Kooperatiba honetako Kontseilu Errektoreak 2017ko martxoaren 29an hartutako erabakiarekin bat eginik, OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO deia egiten zaie Kooperatibako Bazkideei honako egun eta tokian:

### ORONA, S. Coop. en Ohiko Batzar Nagusia

EGUNA: 2017ko maiatzaren 12an  
ORDUA: 10:30etan (lehen deialdia) | 11:00etan (bigarren deialdia)  
LEKUA: Orona Ideo - Hernani  
Hona hemen:

### GAI - ZERRENDA

- 2016/04/22ko Ohiko Batzar Nagusiko akta-onespenari buruzko txostena eta 2017/05/12ko Ohiko Batzar Nagusiko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
- 2016ko ekitaldiko kudeaketa eta urteko kontuen azterketa eta onespena.
- Kontu ikuskariaren berrautaketa.
- 2016ko ekitaldiko soberakin garbien banaketa.
- Heziketa eta Sustapen kooperatiboko derrigorrezko ekarpenen banaketa.
- 2017ko kudeaketa-planari buruzko txostena.
- Igogailu-Sailari eta Mondragon Korporazioari buruzko txostena.
- Kapital sozialari nahitaz egin beharreko ekarpena eta sarrera-kuota.
- Kapital sozialaren ordaintza eta borondatezko maileguak.
- Kapitalerako ekarpenak itzultzeko baimentzen duen akordioa.
- Kontseilu Sozialaren berritza.
- Kontseilu Errektorearen berritza.
- Galde-eskeak.

**OHARRA:** Bazkideei gogorarazten zaie, urteko kontuak, emaitzen banaketaren proposamena eta kanpoko auditoritza kontuen informea, helbide sozialean eskuragarri dituztela Ohiko Batzar Nagusiko deialdiaren epean.